



Jokin  
Uranga  
Isuskiza



## EGUNERO SOKATIRAN



Doinua:

*Minberatu zaizkigu  
Zortziko txikia (7/6 silaba)*

Koplak motz geratu zaizkigu gurasoei eta irakasleei esan nahi dizkiegun denak esateko...  
Goazen neurri luzeagora: *zortziko txikian* jarraituko dugu!  
Hirugarren puntuan, hutsuneak ageri dira. Ea asmatzen dugun alboko esaldia bi bertso-  
lerrotan jartzen eta puntu bihurtzen.

Ahalegintzen dira  
guri **erakusten**  
nahiz guk behar duguna  
ez duten **ikusten**

bertsotan hasi gara barruak **biluzten**

ea kantuan behintzat  
entzuten **gaituzten**.

Goizean prest izaten  
ditugu **arropak**  
gaur ere ezin jantzi  
nahi nituen **botak**

etxeke haserreak eskolako **notak**

ikasleak gara gu  
ez gara **robotak**.

Matematikarekin  
indartsu **darraigu**  
Natur zientziak ere  
bere ordua **zai du**

guztia gordetzeko ez garenez **gai gu**

hurrengo egunerako  
dena ahazten **zaigu.**

Inoiz ezin jolastu  
nahi dugun **horretan**  
bost orduz eserita  
aulki **gogorretan**

horrenbeste ikasgai hainbat **alorretan**

askoz hobeto bizi  
gara **oporretan.**

Afalgaraian denok  
ohi gara **elkartu**  
jan nahi ez dugun hori  
jatera **behartu**

lanak bukatu arte ez ohera **sartu**

etxean ere ezin  
atsedenik **hartu.**

Guraso irakasle  
guztiak **eredu**  
inork erruki pixkat  
izango **ote du**

sarri kokoteraino eginak **gaude gu**

baina guk ere asko  
maite **zaituztegu.**